

Gizarte zerbitzuen ordua

Fernando Fantova

(www.fundacionede.org)

Has gaitezen gertatzen ari zaizkigun gauzez hitz egiten, gauza ederrez eta kezkatzen gaituzten gauzez ere. Gaur egun dugun bizi-kalitatea hobea izanda, askoz luzaroago bizi gara gaur egun, baina horrek erronka handia ere badakar, izan ere, laguntasun behar handia duten gero eta nagusi gehiagori lagundu behar zaie. Familia tradizionalaren egitura aldatzen ari da eta gizon eta emakumeen aukerak berdintzen ari dira, baina ez dakigu nola jagon laguntza beharra duten gure familiako kideak, txikiak zein nagusiak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek gauza liluragarriak egiteko aukera ematen digute, baina, aldi berean, malgutasuna dakarte lan arloan, mehatxutzat eta, sarritan, baztertzaitzat hartzen dugun malgutasuna. Era berean, etorkinak etortzea denok aberasteko, hau da, etorkinak eta bertokoak aberasteko, aukera dela esan ohi da, baina, itxura batean, ez da integrazio emankorrik gertatzen ari etortzen direnen eta harrera egin behar dugunon artean.

Adibideak jartzen jarrai dezakegu, baina badakigu zertaz ari garen. Fenomeno garrantzitsuak dira, berri-berriak izan ez arren, modu berri batean egituratu eta osatzen ari direnak. Ahultasun, menpetasun, bazterketa, zaurgarritasun berriez ari gara hitz egiten. Eta erronka horien aurrean, gaur egun, ez dugula erantzun nahikorik sentitzen dugu. Ez dakigu ematen ari garen erantzunak egokiak diren ere. Mende aldaketako sasoi honetan sarrien erabiltzen den metaforari helduz, erronka sare honek badirudi erantzun egoki eta eraginkorren sarea eskatzen duela, eta erantzun horiek aipatzen ari garen arriskuak duten larritasun eta premiaren neurrikoak izan behar dute.

Demagun, beraz, ahultasunaz, menpetasunaz, zaurgarritasunaz eta bazterketaz modu berezian kezkatzen den baliabide edo zerbitzuen sare motaren bat behar dugula. Demagun sistema egituratu bat behar dela nagusitzen ari direnen beharrizanei erantzuteko, kanpotik datozenak integratzeko, jokoz kanpo geratzen direnak gizarteratzeko eta egoera ahulean daudenak babesteko. Demagun programa edo ekimen multzo bat behar dela, pertsonen autonomia gutxietsi gabe, hezkuntza edo osasun sistemak egiten duten lana osatuz, merkatuei dinamismoa eta eraginkortasuna kendu gabe, mehatxatuta edo kaltetuta ikusten dugun gizarteratze hori bultzatzeko.

Bada, heldu zaigu berri ona. Irakurle maitea, sare hori badago. Sistema hori martxan dugu hemen bertan. Baditugu baliabide eta zerbitzu horiek. Gizarte zerbitzuak dira. Gure legeek aipatzen dituzten gizarte zerbitzuak dira, zein da esaldi probokatzailer hartan "ekonomia da..." esaten zenez, bekokian kolpetxo bat eman eta esaten dugu: "jakina, gizarte zerbitzuak dira...".

Hala ere, onartu behar diogu gure irakurleari, berria ez dela hain ona benetan. Egia da asmakizun handi hori badaukaguna. Baina ez da egia hemen planteatu ditugun erronkei behar den moduko erantzun egokia emateko moduan dagoela. Benetan diogu, ez dago behar bezala erantzuteko. Gure gizarte zerbitzuak, benetan daudenak, lar ataskatuta daude, desegituratuta, uzkurtuta eta nekatuta. Badaukagu asmakizuna, baina ez dago prest. Baliabideak baditugu, baina ez dugu konfiantzarik baliabideotan, ez ditugu zaintzen, ez ditugu berritzen. Ez, behintzat, behar den bezala, ez gaur egungo beharrek eskatzen duten bezala.

Badakizu, irakurle, non dagoen zure etxetik hurbilen dagoen eskola publikoa? Eta, gero, esadazu ea dakizun non dagoen zuri dagokizun oinarrizko gizarte zerbitzua. Zuk badakizu, jakina, gripearen aurkako txertoa hartu duzun osasun zentroa, zure etxera datorren larrialdi zerbitzua edo umea eduki zenuen ospitalea Osakidetza direna. Baina, ziurrenik ez duzu jakingo zeintzuk diren hizpide dugun gizarte zerbitzuen sistema honi dagozkion administrazio unitateak edo programa eta zerbitzuak. Galde diezaiogun geure buruari ea dakigun zein

beharrizani erantzuten dioten gizarte zerbitzuek, ze eskubide dugun gizarte zerbitzuen arloan, nork lan egiten duen gizarte zerbitzuetan eta nola lan egiten duen. Eta ziurrenik ez dugu oso argi izango.

Herritarren ezjakintasun hori, nire ustez, lehen aipatutako egoera ataskatu eta uzurtu horren sintometariko bat baino ez da. Eta, hala ere, jakizu artikulu hau idazten dudala gizarte zerbitzuen aldeko apustua egiteko ordua iritsi zaigula konbentzitzeko. Botoa ematen dutenentzat eta erabakitzen dutenentzat da artikulu hau, eta nire ekarpentxoan egin nahi dut asmakizun ederra daukagula konbentzitzeko, eta baliabide hori prestatzen badugu, arazo asko konponduko dizkigula eta emaitza onak emango dizkigula azaldu nahi dut.

Bai, hurbileko zerbitzuen ordua iritsi delako, pertsonengana hurbiltzen diren zerbitzuena, pertsonen beharrezkoen arabera laguntzen dieten zerbitzuena, alegia. Familiarekin lagunkoia diren zerbitzuen ordua iritsi da, zainketa lanetan familiarekin lehiatu barik, lana konpartitzen duten eta lana egiten laguntzen duten zerbitzuen ordua. Zerbitzu sentikorrek izatea nahi dugu, utzikeria, tratatu txar eta biolentzia egoerak detektatu ditzaten eta beranduegi baino lehen segurtasuna eman dezaten. Esku-hartze komunitarioaren ordua da, dinamika baztertzailak saihesteko eta giza kapitala sortzen laguntzeko. Sinergiak batzeko ordua iritsi da, batetik, erantzukizun publiko proaktiboaren eta, bestetik, ekimen boluntario edo solidarioen bitartez parte hartzen duten herritarren arteko sinergiak batzekoa, hain zuzen ere.

Hain beharrezkoa dugun hori guztia asmatuta dago, eta, hein batean, martxan dago: ez dugu hutsetik hasi behar. Askok aurreratu da azken urteotan, baina apustu are sendoagoa behar dugu, apustu berezia behar dugu une honetan. Gizon asko, eta, batez ere, emakume asko dira egunero-egunero erdi eginik dagoen sistema horretan, erabat lotu gabe dagoen sare horretan gogoz dihardutenak. Gero eta baliabide gehiago ere sartzen dira bertan. Masa kritikoa badago, baina disfuntzioak eta koordinatu gabeko ahaleginak, eta, beraz, bertan behera galdutako ahaleginak ere ugariak dira. Eta sistema hondatzeko benetako arriskua dago, jendeak gizarte kontrolatzeko edo baretzeko baliabideetat hartzeko arriskua dago.

Egitura hobea duten hezkuntza edo osasun sistemak edo prestazio ekonomikoak eskaintzen dituzten erakundeek, pareko sistema bat behar dute premiaz; parekoa baina desberdina eta osagarria, prozesuak eta helburuak konpartitzeko. Gure ongizate sistemaren oin hori garatu egin behar dugu, oraindik ahula da eta. Gure familia eta komunitateek euskarri duina, onartua, baloratua eta egituratua behar dute, laguntzeko eta laguntza jasotzeko, egoera bakoitza kontuan izanda. Gizarte esku-hartzeko hirugarren sektoreari darion solidaritza emariak botere publikoen bitartekaritza eta lankidetzaren behar du.

Une honetan, sistema egituratzeko apustua egin behar dela deritzot, sarean dauden zerbitzuak lotzeko, beste sare batzuekin lotzeko, gizarte zerbitzuek eskain dezaketena argitu eta aurkezteko, eskubideak zabaldu eta sendotzeko. Nire ustez, gizarte zerbitzuei izaera estrategikoa onartu behar zaie gure gizarte konplexu honetan. Herritarrengandik sortu eta herritarrek egingo dituen apustu berria behar dugu. Gizarte zerbitzuek herritarrengandik aterako den lankidetzaren eta legitimazioaren behar dute, lankidetzaren eta legitimazio hori aukera eta borondate politiko bilakatu dadin, sistema eratzeko pausua egiteko, sisteman bizigarriak sartzeko eta pertsona guztiei gizarte eskubide berriak bermatzeko.

Eta orain gizarte zerbitzuetako kideei zuzentzen natzaizue, eta zenbait apustu egiteko eskatzen ausartzen naiz. Batu ditzagun gure ahaleginak. Ez ditzagun izen edo bildukin berriak asmatu gutxieneko erreferentzia marko baten jabe den zerbitzuetatik. Ez dezagun sail zatiketa artifizialik egin. Ez gaitezun itzuli gizarte arloan dagoeneko gaituta dauden esku-hartze bertsio zaharretara. Ez diezaiogun heldu berriro sorospenari, paternalismoari, pribatizazioari. Sistema publikoaren enbrioia daukagu. Egin dezagun horren aldeko apustua, indartsuagoa eta egituratuagoa izan dadin. Erantzukizun publikoa onartuz, eman ditzagun urrats gero eta irmoagoak sare hori antolatzeko eta bultzatu dezagun, egoki diren arloetan, administrazio publikoaren eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzaren, eta ahaleginak gaitzearen irabaz

asmodun ekimen pribatuak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu eta arautzeko gizarte merkatuak eratzen.

Apustu estrategikoek sinergiak sortzen laguntzen dute eta gizartean eragin nabarmena izaten dute. Gizarte zerbitzuek, gaur eta hemen, izaera estrategiko hori dute, izan ere, beharizan oso garrantzitsu eta konplexuei erantzuten diete edo erantzun diezaiekete; enplegua sortzeko ahalmena dute; familia eta gizarte sareetan eragin nabarmena dute; boluntariotza, partaidetza eta elkartasun prozesuen dinamizaziorako oso garrantzitsuak dira; erantzukizun publikoko sistema eratzeko modu parte-hartzaileagoak eta irekiagoak martxan jartzeko bidea ematen digute; eta, azkenik, ekintza publikoa legitimatzeko aukerak eskaintzen dituzte.

Bai, gizarte zerbitzuen ordua iritsi da. Ez dezagun aukera galdu.

www.fantova.net